



OSTEGUNA

2023/01/19
11. urtea, 1.721. zenbakia
107.6 fm

Ataria.eus

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 90 €

Ataria Bertso Jaialdia hartuko du Leidor aretoak, larunbatean

Amaia Agirrek gidatuta, Oihana Iguaran, Jexux Mari Irazu, Alaia Martin, Amets Arzallus, Nerea Ibarzabal eta Sustrai Colina ariko dira bertsoan // 2

Aiztondo bailarako ekintzaileek Anttine elkartea sortu dute

Trukea, elkarrekin plazaratzea eta ekintzaile gazteen lana ikustaraztea da elkartearen helburua; Anttine egunaz gain, bestelako ekitaldiak ere antolatzeke asmoa dute // 5

Hamabi ekitaldi, Alegiako neguko egitarauan

Adin eta mota guztietako herritarrei zuzendutako ekitaldiak prestatu ditu Alegiako udalak, martxora bitarte // 3

Behar bezalako parte hartze prozesua egiteko eskatu du EH Bilduk

Koalizioak EAJ eta PSE-ri eskatu die «propaganda egiteari» uzteko eta Zumarditxikiaren prozesua behar bezala bideratzeko // 2



JON MIRANDA

«Gazteek horrelako egitasmoak bultzatzea gustatuko litzaiguke»

JON ARRIETA ETA IÑAKI LOPETEGI BIDAIAIRIAK

Bi gazte tolosarrek Tolosatik Ghanarako bidaia egingo dute martxoan furgonetaz, eta ibilgailua han utziko dute ikasleek eskolara joateko erabili dezaten; materiala jarri dute salgai proiektua finantzatzeko laguntzeko // 4

Eskualdeko gazteak lasterka aterako dira igande goizean

34. Ero-Etxe Krosa egingo dute Tolosan; San Frantzisko ibiltokian izango du irteera eta helmuga eta sei mailatan ariko dira // 7

zozketak

Atarikideentzat **saski bat** dugu

Errigorako saski zuria

Zozketan parte hartzeko **osteguneko** 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**

ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA-TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 ISASTEGL.COM



Pasa den urteko bertso jaialdiko une bat. ENERITZ MAIZ

Aurreikuspenak betetzeko asmoz dator Ataria Bertso Jaialdia

Larunbatean izango da, Amaia Agirre izango da gai jartzailea, eta bertsoan, Oihana Iguaran, Jexux Mari Irazu, Alaia Martin, Amets Arzallus, Nerea Ibarzabal eta Sustrai Colina ariko dira

Erredakzioa

Bertso gosez dago bertsozalea, gogotsu. Antzematen da Bertsolari Txapelketa Nagusia igaro berri dela, bertsorako grina are gehiago handitzen baitu. Agendari erreparatuta ere nabari da, batean eta bestean bertso saioak antolatzen ari baitira. Bada, nabarmendu beharreko jaialdi bat, ordea. Urtero-urtero eskaintzen duen mailagatik erreferentziazko saioa bilakatu da Ataria Bertso Jaialdia, eta larunbat honetan izango da Tolosako Leidor aretoan, 18:00etan hasita.

Ohi bezala, bertsozaleen gosea asetzeko helburuz puntako bertso saioa prestatu du ATARIA-k. Saioaren gidari lanak, ohiko moduan, Amaia Agirrek egingo ditu, eta bertsoan ariko den seikotea Oihana Iguaran, Jexux

Mari Irazu, Alaia Martin, Amets Arzallus, Nerea Ibarzabal eta Sustrai Colinak osatuko dute. Bertsolarien inguruan Agirrek nabarmendu du jaialdiko ohiko bi bertsolarien hutsunea izango duela saioak: «Pena da Andoni Egañak eta Maialen Lujanbiok ezin izan dutela jaialdian egon; azpimarratu nahi dut, eskualdeko bi bertsolari ere izango ditugula, Oihana eta Jexux Mari».

Saioak izango dituen ezaugarriak buruz galdetuta, oholza «inoiz baino biluziagoa» egongo dela aurreratu du gai jartzaileak, baina, hori bai, pantaila behin baino gehiagotan erabiliko du: «pantaila bidez, esaterako, kirol munduko pertsonaia ezagunak sartuko dira, eta jende ezagun gehiago ere ikusiko dugu».

Gaiak askotarikoak izango dira, eta adierazi du Agirrek: «umore-

tik, seriotik eta aktualitateari lotutako gaiak izango dira, eta bertsolariak, gai jartzailea eta entzuleak mugitzen dituzten gaiak ere bistaratzen ahaleginduko gara». Osagai horiekin guztiekin entzuleen aurreikuspenak betetzea espero du gai jartzaileak, bi ordu inguruko saioarekin.

SARRERAK AGORTUTA

Leidor aretoan izango da saioa, eta 18:00etan hasiko da. Hori bai, ateak 17:15 aldera zabalik egongo dira, eta 17:55erako sarrera eskuratu duen oro barruan egotea eskatzen da, hain zuzen, saioa puntual hasteko helburuarekin.

Sarrerak zenbakituak dira, eta bakoitzak bere eserlekuan eseri beharko du. Sarrerak agortuta daudenez, ez dute Leidorreko leihatila irekiko.

«Zumarditxikiak alderdi politikoen lehiatik kanpo beharko luke»

Parte hartze prozesuaren gaineko «propaganda» egin ordez, behar bezalako prozesua bideratzea eskatu du EH Bilduk

Erredakzioa

EH Bilduk adierazi duenez, Zumarditxikia berreskuratzeko parte hartze prozesua «hasieratik ez da behar bezala bideratu», eta horregatik, EAJ eta PSEri eskatu die behar bezalako parte hartze prozesua bideratu dezaten, «egiten ari diren parte hartze prozesuaren gaineko propaganda egin ordez».


Koalizioaren iritziz, 2018ko azaroan egin zen lehenengo bileratik 2021eko uztailera egindako bileretan aurkeztutako bi proposamenek ez zuten herritarrek «ahalik eta espazio naturalena» izatearen nahia betetzen. «Hori gutxi balitz, 2018 urtean egin zen bilera horretara gerturatu ziren 7 herritarrek beren bat-bateko iritzia eman zuten, alde zuzenetik informaziorik jaso gabe».

Legedi osoan zehar, Zumarditxikiaren gaia ez dela udal barruko inolako foroetan eztabaidatu esan dute EH Bilduko kideek, eta salatu dute ez dutela inongo momentuan proiektuaren berri izan, ezta beraie iritzirik emateko aukerarik izan ere. «Aurrekari horrekin, behin betiko proiektua aurkeztu zen, eta iraileko udalbatzan udal gobernuak obra egiteko 2.000.000 euro gehitu zituzten, aurretik esleitu zituen 500.000 euroko partidari».

Bilduren iritziz, aurkeztutako proiektuak Zumarditxikiaren balio historikoa eta paisajistikoa ez du errespetatzen eta espazioa «errotik» eraldatuko dute; gainera, azpimarratu dute herritar ugarik bere kezka eta kontrako iritzia azaldu duela, «tarteetan, sona handiko hirigintzan adituak eta herriko 34 arkitekto».

Era berean, azken asteetan Olatz Peon alkatea egiten ari den «esfortzu eta gastu erraldoia» proiektuaren definizio fasean egin behar zela uste du oposizioak, eta salatu du «bere proiektua zabaltzeko egiten ari den erauntsi propagandistikoa». Halaber, adierazi du «behar bezala landu ez den eta kontrako iritzia andana duen proiektu bat inbutuarekin sartu nahi dugutela» eta bertan aparkatzen duten ibilgailuei konponbiderik eman gabe utzi dutela.

Horregatik eskatzen diete EAJ eta PSE alderdiei utz diezaiotela «propaganda» egiteari, eta aparkalekuen irtenbidea adostu dezatela lehenbailehen. «Behar bezalako parte hartze prozesurik ez baldin badute bideratzen, eta tolosarrekin nahi ez duten proiektuarekin aurrera jarraitzen baldin bada, atzera bueltarik izango ez duen hanka sartze historikoa izango da», esan du EH Bilduk.



Zumarditxikiaren proiektuko irudia. TOLOSAKO UDALA

Euskal Herriko Historian sakontzeko aukera izango dute altzotarrek

Iaz abiarazitako bideari jarraipena ematea erabaki dute udalak eta Kultura Batzordeak, eta lau saio antolatu dituzte

Erredakzioa Altzo

Asisko Urmeneta Otsoa irudigile eta komunikatzaileak Euskal Herriko historian sakontzeko saioak eskainiko ditu Altzon. Udalak eta Kultura Batzordeak antolatu dute ikastaroa, iazko ikasturtean hasitako bideari jarraituz, eta aurtengo ikastaroaren helburua da Euskal Herriko historian sakontzea, eta batez ere, iazko ikastaroan landu gabe geratu ziren gertaera eta eremueta iristea.

Ikastaroak lau saio barnebiltzen ditu eta izena urtarrilaren 26a bitarte eman daiteke kultura@altzo.eus helbidera idatziz, edo udaletxera gerturatuz. 20 euro ordaindu beharko da.

Saioak urtarrilaren 28an, otsailaren 25ean, eta martxoaren 11n eta 25ean izango dira, 10:00etatik 12:00etara, Batzarremuñon. Argitu dute saioetan atsedenaldirik motz bat egingo dutela.

Lehen saioan 1513 eta 1614 urteen artean Euskal Herrian eman zen sorgin ehiza izango dute hizpide. Bigarrenengoan 1789ko Frantziako Iraultzak eta Konbentzioaren Gerla Euskal Herrian izandako eragina. Hirugarrenengoan 1833 eta 1876 arteko Karlistadak eta izan zituzten ondorioak, eta laugarrenengoan Karlismotik euskal abertzaletasunerrako bidea.

Martxoaren 31 bitarteko ekitaldiak, Neguko Kultur Egitarauan

Atzo hasi zituzten Alegian ekitaldiak; adin guztietako herritarrei zuzenduriko hamabi ekitaldi prestatu ditu kultura batzordeak, tartean 'Ukitzeko artea' erakusketa

Erredakzioa Alegia

Gabonak igarota, negurako prestatu duen kultur egitaraua aurkeztu berri du Alegiako Kultura Batzordeak.

Atzo hasi zen Alabazan taldearen ipuin kontaketa batekin, martxoaren 31ra bitarte luzatuko da eta adin guztietako herritarrei zuzenduriko hamabi ekitaldi bilduko ditu.

Datorren ostiralean, hilak 27, *Aho bete hortz* ikuskizuna hartuko du zinemak 17:00etatik aurrera. Eta sarrerak kultur etxean erosi daitezke.

Urtarrilaren 30etik otsailaren 9ra gainera, *Ukitzeko artea* erakusketa ikusi ahal izango da kultur etxeko areto nagusian.



Ekain pailazoaren 'Aho bete hortz'. KULTURAZ, AZPEITIKO KULTUR KOOPERATIBA

EGITARAUA

Urtarrilak 27, ostirala. Ekain pailazoaren *Aho bete hortz* ikuskizuna, 17:00etan, zineman. Sarrerak kultur etxean erosi daitezke.

Otsailak 4, larunbata. Kantueske herrikoia egingo dute Santa Ageda bezpera dela eta, herriko bertsolariekin eta trikitilariekin, Txintxarri Abesbatza Kultur Elkarteak antolatu.

Otsailak 10, ostirala. *Lehendakari-gaia* antzezlanak 22:00etan, kultur etxean. Sarrerak kultur etxean erosi ahal izango dira otsailaren 6tik aurrera.

Otsailak 28, asteartea. Zoa Meza eta Maite Francoren *Erdialdeko Amerikako istorioak* haur ikuskizuna 17:00etan, liburutegian, Ahoz Aho jaialdiaren barruan.

Martxoak 1, asteazkena. Rakel Gamitoren *Internet, pantailak, bideo-jokoak, sare sozialak...* Onurak eta gatazkak. Nola kudeatu hitzaldia, 18:00etan, kultur etxean.

Martxoak 8, asteazkena. Emakumeen Nazioarteko Egunari lotutako ekitaldiak.

Martxoak 14, asteartea. Martha Escudero eta Marta Alzateren Me-

xikoko istorioak haur ikuskizuna 17:00etan, liburutegian, Ahoz Aho jaialdiaren barruan.

Martxoak 23, osteguna. Irakurle taldea, liburutegian 18:00etan. Nerea Ibarzabal Salegiren *Bar Gloria* izango dute hizpide.

Martxoak 24, ostirala. Beatriz Egeabalen *Magma mia!* bakarrikzeta 22:00etan, zineman. Sarrerak kultur etxean erosi ahal izango dira martxoaren 20tik aurrera.

Martxoak 31, ostirala. Sutarri dantz taldearen emanaldia 22:00etan, zineman.

Bueltan da Ikaztegietako irakurle taldea

Otsailaren 23an izango da irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenaren urteko lehen hitzordua, Oihana Iguaranek gidatuta

Erredakzioa Ikaztegieta

Urtea hasita, Ikaztegietako irakurle taldeak finkatu ditu urteko lehen bi hitzorduak. Otsailaren 23an, osteguna, Arantxa Urretabizkairen *Azken Etxea* liburua aztertuko dute Oihana Iguaran Amasako bertsolariaren gidaritzapean. 18:30ean elkartuko dira liburutegian.

Hurrengo hitzordua apirilaren 27an izango da. Nerea Ibarzabal Salegiren *Bar Gloria* izango dute hizketagai, 18:30etik aurrera liburutegian. Orduan ere Iguaran izango da dinamizatzailea.

Desfibrilagailu bakarria dago herrian

Erredakzioa Ikaztegieta

Ikaztegietako Udalak jakinarazi du udaletxe zaharraren sarrera-ko desfibrilagailua bateria baxuarekin dagoenez, kendu egingo dutela.

Desfibrilagailu berria jarri bitartean, kiroldegiko goiko sarrean dagoena bakarrik izango da herrian. Izan ere, denboratxo bat pasako da berria izan arte, txip arazoak direla medio *stock* arazoekin daudela ohartarazi du udalak.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 130 € • Harpidedunentzat 65€

HANDIA (124mm X 63,5mm): 180 € • Harpidedunentzat 90€

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 80 € • Harpidedunentzat 40€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu

«Jendearenganako interesa piztea da bidaiaren helburua»

Endika Apalategi Labayen

Iñaki Lopetegik eta Jon Arrieta tolosarrek Ghanarako bidaia egingo dute martxoan. ToloTro izena jarri diote abenturari, eta euren asmoa da bidaiatzeko erabiliko duten furgoneta bertan uztea, ikasleek eskolara joateko erabili dezaten. Materiala ere sortu dute euren proiektua euren proiektua finantzatzeko laguntzeko.

Nondik nora bururatu zitzaien proiektu hau sortzea?

Iñaki Lopetegik: Bidaiariak gara eta beti ibili gara abentura bila. 2016. urtean furgoneta erosi eta Afrikan izan nintzen boluntariotza bat egiten Malawin. Jon (Arrieta), berriz, urte berean Ghanan izan zen hilabete batez. Bertan ikusi nuen jendeak zer etekin ateratzen zien ibilgailu zaharrei eta nik ere gauza bera egitea gustatuko litzaidakeela pentsatu nuen furgoneta zahartzerakoan. Ideia honen hasiera, pandemia garaian izan zen. Bertan, pentsatzeko denbora asko eduki genuen eta biok pentsaera berbera genuenez, proiektu hau aurrera eramaten hasi ginen.

ToloTro izena nondik dator?

Jon Arrieta: Iñakik aipatu duen moduan, Ghanan izan nintzen boluntario modura. Leku batetik bestera mugitzeko bertako garraioa erabiltzen genuen; kasu honetan furgonetak ziren eta guk eramango dugunaren antzekoak dira bertako furgonetak. Ghanan, horrelako furgonetei *TroTro* deitzen diete, gu tolosarrak garenez eta gure bidaia Tolosatik abiatuko dugunez izen hau jartzea erabaki genuen.

Afrikan oso ohikoa da 25 pertsonen bateriko furgonetetan joatea, zuen furgonetak horrenbeste jende eramateko gaitasunik ba ahal dauka?

Lopetegik: Ez dakigu gure furgonetak horrenbeste ume eskolara eramateko gaitasunik izango duen, baina zifra horretara gerturatzeko aukera baldin badugu ez da seinale txarra izango.

Nola eraman duzue proiektuaren prozesu guztia? Erraza izan ahal da?

Lopetegik: Horrelako bidaia bat

IÑAKI LOPETEGI ETA JON ARRIETA TOLOTRO PROIEKTUKO BIDAIAIRIAK

Iñaki Lopetegik 2016. urtean erosi zuen furgonetaz baliatuta, Ghanarako bidaiari ekingo diote martxoaren 24an bi tolosar gazteek; furgoneta bertakoek erabiltzeko han utziko dute



E. APALATEGI LABAYEN

egiteak gastu handia dakar: alde batetik, furgonetarako erregaia ordaintzea gastu handia da. Beste alde batetik, Afrikako mugak pasatzea ez da hemendik Frantziara joatea bezain erraza, eta negoziazio gogorrak izaten dira mugetan

«Afrikako mugak pasatzea, ez da hemendik Frantziako mugak igarotzea bezain erraza»

IÑAKI LOPETEGI

dauden agenteekin igarotzeko behar diren bisatu guztiak lortzeaz gain. Lanetik ere hiru asteko oporraldiak ditugu eta bidaia denbora tarte horretan egitea ez da erraza izango.

Ghanas de vivir deitzen den GKEekin elkarlanean egongo zarete. Zertan datza

governuz kanpoko erakunde hau?

Arrieta: Lehenik eta behin, Ghanas de vivir governuz kanpoko erakundearekin harremanetan jartzea lortu genuen. Erakunde hau sortu zuen neska gurasoak tolosarrak dira. GKE honek eskola bat eraikita dauka Ghanan, eta bertan ekin-tza ezberdinak antolatzen dituzte. Dirua biltzeko egitasmoak ere beraiek antolatzen dituzte, eta beraien helburu nagusia umeak eskolaratzea da.

Lopetegik: Azken finean, umeak eskolaratzeko zailtasun handiak dituzte, beraien etxetatik eskolara ibilbide luzea baitago; beraz, umeak eskolara joan-etorria egiten denbora asko behar dutenez, lanera eramaten dituzte zuzenean.

Proiektua finantzatzeko eta zabaltzeko asmotan, hain-

bat produktu jarri dituzue salgai, nolakoa izan da jendearen erantzuna ekimen honen aurrean?

Lopetegik: Lehen aipatu dugun moduan, horrelako proiektu bat martxan jartzeak gastu handia dakar, horregatik, bidaia-

«Hurrengo bidaian anbulantzia bat erosi eta Afrikako edozein lekura joatea gustatuko litzaguke»

JON ARRIETA

ren gastuak neurri handi batean finantzatu ahal izateko kamisetak, katiluak, eta edalontziak saltzen jartzea erabaki genuen.

Arrieta: Jendearen erantzuna nahiko ona izan da orain arte; gure familiak, lagunak eta ezezagun asko animatu dira gure

produktuak erostera gure bidaia finantzatzeko laguntzeko asmotan, eta eskerrak eman nahi dizkiegu prozesuan parte hartzen ari den pertsona orori. **Pasa den larunbatean Trianguloan jarri zenuten postua. Beste aukerarik ere izango al da zuen produktuak erosteko?**

Lopetegik: Larunbatean gerturatu ezin zutenek aukera dute e-mail bidez gure produktuak eskuratzeko. Eskaerak egiteko emaila tolotro2023@gmail.com da. Horretaz gain, beste egun batzuk jartzeko asmotan gaude gure produktuak presentzialki saltzeko.

Martxoaren 24an ekingo diozue zuen bidaiari Tolosatik Ghanara. Zer nolako aurreikuspenekin ekingo diezue bidaiari? Zein ibilbide izango du bidaiak?

Arrieta: Gure bidaiak 7.000 kilometro izango ditu, eta gure asmoa hiru astetan iristea izango da. Tolosatik hasi, eta Tarifa, Maroko, Mendebaldeko Sahara, Mauritania, Senegal, Guinea eta Boli Kostatik pasata Ghanara iristea da helburua. Bidean denborarik ez galtzeko, jada Afrikako enbaxadekin hitz egiten ari gara bisatuak lortu eta mugetan ez denborarik galtzeko. Egia da Afrikako egoera oso aldakorra dela eta herrialde batzuetan mugak itxita egoten direla tarteka; orduan, zerbait gaizki joanez gero alternatiba ezberdinak bilatzen gabilta badaezpada ere.

Zuen furgonetarekin bertako ikasleak eskolara joateko aukera izateaz gain, beste helbururik jarri al diozue bidaiari?

Lopetegik: Bai, gure bigarren helburua eta lehenengo helburua maila berdinean jartzen ditugu, eta hori proiektuaren zabal-kundea da, alegia, jendeak jakitea gure proiektua zertan datzan. Garrantzitsua iruditzen zaigu jendearenganako interesa piztea, eta asko gustatuko litzaguke esaterako hemendik urte gutxira beste bi gaztek horrelako egitasmo bat egitea bultzaraztea.

Etorkizunera begira, horrelako beste ekimenik egiteko asmorik ba al duzue?

Arrieta: Etorkizunera begira baditugu ideiak buruan; egia da oraindik ez dugula ezer finkaturik, baina hurrengo bidaian anbulantzia bat erosi eta Afrikako edozein lekura joatea gustatuko litzaguke, proiektu hau amaitu ostean.

Jon Miranda Asteasu

2020. urtean Anttine eguna antolatzeke bildu ziren Asteasun hainbat gazte eragile. Hiru urte beranduago, elkarte sortzea erabaki dute eragile horietako batzuk, Anttine egunaz harago, urtean zehar ekimen ezberdin gehiago antolatzeke. «Uste dugu elkarrekin indar handiagoa dugula eta elkarte bat eratuta gauza gehiago egin ditzakegula», esan du Beñat Garcia Escribanok, Mattin Gizarte Abentura ekimeneko arduradunak. Berekin batera, Patxine tabernako Egoitz Aranburuk, Alti errendimendu proiektuko Xabi Irazuk eta Aritz Segurola entrenatzaile pertsonalak osatu dute Anttine kultur elkarte.

Elkartearen bitartez euren ideia eta baloreak transmititzeko aukera gehiago izango dutela esan du Garciak. «Anttine izena asmatu genuenean ere horrekin egin genuen jolas. Patxine eta Mattin izenak nahastuta eta antzina izaten ziren balio horiek go-goan hartuta. Uste dugu elkar trukea, elkarrekin plazaratzea eta ekintzaileon lanak ikusaraztea direla gure balioak. Auzolanean, elkarrekin aritzearen balioa da sustatu nahi duguna».

Orain arte antolatu dituzten ekitaldietan helburu solidarioak dituzten ekimenak bultzatu dituzte. 2020an egin zuten lehen Anttine egunean, esate baterako, Kikarakada Lesbos uharterko haur errefuxiatuekiko elkartasun ekimenari egin zioten lekua, eta iazko edizioan, Jatorkin Al-Nahda elkarteak postu solidarioa jarri zuen Asteasun, informazioa banatu eta produktuak jaso ahal

Elkar trukea, elkarrekin plazaratzea eta ekintzaile gazteen lanak ikusaraztea da elkartearen helburua

izateko. «Anttine egunean txosna herrikoia ere jartzen dugu eta borondatez aritzen gara gazteak lanean. Bildutako dirua elkarte bati ematen diogu eta iaz Aspainogi elkartera bideratu genituen irabaziaz», esan du Mattin Gizarte Abenturako kideak.

Aiztondo bailarako ekintzaileak lanerako, elkarri laguntzeko, eta beste eragileei ekarpena egiteko prest daudela eman nahi dute ezagutzera Anttine elkarte kideek, izan gazte edo heldu: «Gu gazteak gara, motibatuta gaude eta gauzak egiteko elkarrekin antolatzen gara. Ekintzailetasun hori da proiektu honekin ikusarazi nahi duguna. Gure baloreekin bat datorren guztia ongi



Iazko Anttine egunean lehen aldiz egin zuten herri kirol eta krosfitaren arteko desafioa eta aurtengo errepikatuko dute. J.M.

Anttine elkarteak sortu dute

Aiztondo bailarako gazte ekintzaileek egitura finko bat sortzea erabaki dute, Anttine egunaz gain, urtean zehar bestelako ekitaldi batzuk antolatzeke



Garcia, Segurola eta Irazu, atzo, Asteasuko Kale Nagusian. ATARIA

etorria da». 2020an ideia gauzatzeko hasi zenean eragile ezberdinak batu ziren ekimenara. Besteak beste, Beertoki artisau garagardo elkarteak, Ama tabernak edota Zataizkit arropa markak hartu izan dute parte Anttine egunean. «Eragile horietako batzuk bere bidea segitu dute, baina gertu sentitzen ditugu. Bide honetan, eragile berriak ere gerturatu zaizkigu eta hori pozgarria da», esan du Garciak.

INDARRAK BATUZ

Aurtengo batu da Alti errendimendu proiektuko Xabi Irazu elkarte, eta aurretik modu berean egin zuen Aritz Segurola entrenatzaile pertsonalak. Iazko Anttine egunean, Segurolak bultzatuta egin zuten herri kirolaren eta krosfitaren arteko desafioa. Arrakasta «handia» izan zuela dio Garciak, Asteasuko eta inguruko 25 gazte baino gehiagok hartu baitzuten parte pilotalekuan antolatutako lehian. Aurtengo martxoaren 25rako iragarri dute Anttine eguna eta antolatzailerik aurreratu dute berriro

egin dute herri kirolaren eta krosfitaren arteko desafioa.

Aurrerago emango dute ezagutzera Anttine eguneko egitarau osoa, baina aurreratu dute familien arteko olinpiadak izango direla goizean eta proiektu ezberdinak azalertzeko ekimenak antolatuko dituztela. Arratsalde parte festarako baliatuko dute eta oraingoz baieztatu ahal izan dutenez Distopia elektrotxarangaak ariko dira, besteak beste, III. Anttine eguneko egitarauaren barruan. «Asteasun ospatzen diren festa gehienak plaza inguruan antolatzen dira eta gure asmoa jai giroa herriko txoko ezberdinetara zabaltzea da. Anttine eguneko ekitaldietako batzuk Kale Nagusi ingurura eramango ditugu», aurreratu du Garciak.

Eguna antolatzeke jende askoren laguntza beharrezkoa dela aipatu du Mattin Gizarte Abenturako kideak, eta Anttine elkartearen helburua, hain zuzen, horrelako ekimenen inguruan gazteak aktibatzea eta saretzea dela esan du. «Gure artean ezin dugu dena antolatu. Ezin gara toki guztietara iritsi. Karpajartze, bazkaria zerbitzatzeko, guztia jasotzeko, hondakinak biltzeko.... gazte asko aritzen da lanean Anttine egunean eta hori ere eskertzekoa eta poztekoa da». Aurtengo, Asteasuko Udalaren laguntza ere jasoko dutela iragarri dute elkartetik.

MARTXOAREN 11N, IGOERA

Anttine elkartearen asmoa egunaz aparte ekitaldi gehiago antolatzea da. Aurreko urteetan bezala xake eta mus txapelketak egiteko asmoa dute 2023. urte honetan ere.

Anttine igoera egingo dute aurtengo lehenengo aldiz, martxoaren 25eko III. Anttine egunaren aurretik

netan ere. «Mattin Gizarte Abenturan ere badugu asmo berri bat, bibak asteburuak antolatu nahi ditugu. Lehenengo asteburu Anttine elkartearen babespean egingo dugu», azaldu du Garciak.

Aurtengo Alti errendimendua proiektuan sartu denez, beste egitasmo handi bat bideratu nahi dute elkartetik: Anttine igoera. Mendi lasterketa izango da Iturriotzetik Herniora eta martxoaren 11n egingo dute. «Asmo asko dauzkagu eta elkarrekin aterako ditugu aurrera», esan du Garciak. Elkarren arteko trukean, elkartasunean eta ekintzailetzan ari diren eragileek emango dute zer esana Aiztondo bailaran.



Iazko denboraldia txotx zutik egin ezinik hasi zuten; aurten, ordea, kupeletan lasai ibiltzeko aukera izango da.. Argazkian, Isastegiko kupelak. I.S.A.

Sagar gutxi jasoagatik, kupelak bete-beteta dituzte eskualdeko sagardotegiek; Adunan, Asteasun, Lizartzan eta Tolosan bada txotx egiteko aukera

Gorputza duen sagardoa

Irati Saizar Artola

Hasi da txotx denboraldia eskualdean, eta hasi dira sagardozaleak lehen sagardoa dastatzeko. Tolosaldean, besteak beste, Zabala, Aburuza, Sarasola, Eguzkitza eta Isastegiko zabaldu dituzte ateak, eta Lizartzako Goikoetxea sagardotegiak bihar bertan hasiko du denboraldia, iluntzean.

Eguzkitza sagardotegiak, esaterako, urtarrilaren 5ean hasi zuen denboraldia, baina urte batzuk daramatzate abenduko asteburuetan zabaltzen, Jon Zipitria arduradunak azaldu duenez: «Abenduko asteburuak aurreko urteak bezala joan dira; tartean, enpresako otorduak izan ditugu». Isastegin, berriz, larunbat iluntzean egin zuten denboraldiko lehen otordua. Joseba Lasa

arduradunak kontatu duenez, «familiarreko giroan, lagun eta ezagunen artean» eman diote hasiera. «Beti izaten da berezia lehen otordua». Eta Zabala sagardotegian «lasai» hasi dute martxa, «datorrenari begira». Halaxe esan du Martin Zabala arduradunak.

Asteburuei begira baikor daude sagardogileak, badakitelako mugimendua izango dutela, baina, astegunetako otorduak kezka handiagoz ikusten ditu, esaterako, Zipitriak: «Astegunez, iluntzeetan, afaltzeko martxa gutxitzen ari ote den ari gara ikusten; oraindik garaiz da, baina itxura hori du».

Erreserbak daukaten erritmoa ikusita denboraldi «ona» espero dute Isastegin. Ostirala eta larunbatari dagokionez, beste urteetan bezala lan egitea aurreikusten dute, «aurreikuspen ona daukagu». Asteazkenean zeharreko

mugimenduari zalantziak egiten dio Lasak ere; hala ere, «beste urteetako mantentzeko gai» izango diren esperantza du.

Zabala sagardotegian ere badakite larunbat eguerdian sagardotegia betetzeko moduan izango direla. «Larunbatetan anabasa izango dugula badakigu, eta hortik aurrera ea zer gertatzen den». Larunbat eguerditarako dute erreserba gehien Zabalan, hala ere, asteazkenean «beti zerbait» izaten dutela dio, baina «urtetik urtera gutxiago».

Sagardotegira joan, sagardoa dastatu eta azalpenak lasai entzuteko unerik aproposena jende gutxiago dabilenean izan ohi dela dio Zabalak: «Jende asko dagoenean badakizu zer gertatzen den, ez da posible izaten denekin egotea; guri gustatzen zaiguna txotxera joan eta kontu batzuk esaten lasai egotea da».

Lizartzako Goikoetxea sagardotegiko Juan Karmelo Goikoetxeak ere zalantzarekin ikusten du denboraldi berria: «Prezioak igo egin dira, eta guk ere igo egin behar izan ditugu. Lehortek ere ez du batere lagundu; ea nola eragiten digun». Iaz, pandemiaren ondorena izanagatik, jende «gutxiago» ibili zutela kontatu du, bereziki iluntzeetan, eta aurten zer norabide hartuko duen zain daudela dio. «Kalderero eta inauteriei begira erreserbak jasotzen ari gara ordea, eta martxorako ere agenda betetzen ari zaigu».

UZTA «SENDOA»

Udan izandako tenperatura altuak, eta horrekin batera etortako lehortek, ez die mesede egin sagarrondoei, eta sagar «gutxi» jaso dutela kontatu dute. «Lehorra izan da eguraldi aldetik, eta sagarra bera ere lehorra

«Garai honetarako gorputzarekin dago sagardoa; berez, sagardoa gozoagoa izaten da urtarrilean»

JON ZIPITRIA
EGUZKITZA SAGARDOTEGIA

«Guri gustatzen zaiguna txotx egitera joan eta jendearekin kontu batzuk esaten lasai egotea da»

MARTIN ZABALA
ZABALA SAGARDOTEGIA

«Sagar gutxi biltzeak, gorputz gehiagoko sagardoa ateratzea ekarri du, nortasun handiagoarekin»

JOSEBA LASA
ISASTEGI SAGARDOTEGIA

«Kalderero eta inauteriei begira erreserbak jasotzen ari gara; agenda betetzen ari zaigu»

JUAN KARMELO GOIKOETXEA
GOIKOETXEA SAGARDOTEGIA

etorri da», dio Zipitriak. «Hilabete bat aurreratu zitzaigun sagarra, eta garai honetarako gorputzarekin dago sagardoa; berez, sagardo gozoagoak izaten dira oraindik urtarrilean». Kupeletan jaso dutenarekin, ordea, «gustura» daude Eguzkitzan: «Aurten, nabarmena da diferentzia, sagardoak gorputza du, sagardo politak ditugu, eta jendea ere gustura ari da sagardoa dastatzeko».

Isastegin ere sagar «gutxi» bildu dutela kontatu du Lasak. «Aldi berean, horrek, gorputz gehiagoko sagardoa ateratzea ekarri du, alkohol gehiagorekin eta nortasun handiagoarekin». Sagardotegira joan eta probatzean, aldaketa nabaritzeko modukoa dela dio. Bertako sagarrarekin nahikoa ez, eta kanpoko hornitzaileei jo behar izan diete atea: Frantziatik ekarri dute sagar gehiago. «Gure bezeroak sagardorik gabe ez dira geratuko, lasai etor daitezela».

Zabalan ere, etxeko sagarrekin nahikoa ez, eta Frantziatik ekarri dute sagarra, uzta osatzeko. «Uzta sendoa izan da, iaz baino gorputz gehiagorekin, kolore gehiagorekin, alkohol gehiagorekin», kontatu du Zabalak. Jendea gehiago gustatuko zaion esperantzarekin daudela dio. «Urtetik urtera sagardoa desberdina izaten da, eta hori da polita, ez dagelako formula magikorik sagardoa egiteko».

Bi urtez egin gabe egon ondoren, bueltan da berriro Ero-Etxe Krosa

Ehunka haurrek parte hartuko dute igande honetan egingo diren lasterketan; ohi bezala, Tolosako San Frantzisko ibiltokian izango da probetako irteera zein helmuga

Erredakzioa Tolosa

Urtarrileko ohiko hitzordua izan da aspaldidanik Ero-Etxe Elkar-tearen Krosa. Aurten 34. aldia izango da, eta COVID-19a dela-eta bi urtez egin gabe izan ondoren, igande honetan ehunka haur ariko dira Tolosako kaleetatik korrika. 850 dortsal banatu dituzte eskualdeko eskoletan zehar, eta dortsalik ez dutenek, egunean bertan, Ero-Etxe Elkar-teko antolatzaileek jarritako ma-

hai batean izena emateko aukera izango dute. Parte hartzea doakoa da.

Ohi bezala, San Frantzisko ibiltokian egongo da irteera eta helmuga, eta sei lasterketa izango dira guztira. 11:30ean, infantil mailako (2009-2010) mutilen proba izango da, eta 2.800 metro egingo dituzte korrika; 11:45ean, infantil mailako nesken proba izango da, eta 1.950 metro egingo dituzte; 12:00etan aterako dira alebin mailako (2011-2012) muti-

lak eta 1.400 metro egingo dituzte; 12:15ean neska alebinen irteera izango da eta 1.400 metro egingo dituzte; 12:25ean, benjamin mailako (2013-2014) mutilak aterako dira eta 1.100 metro egingo dituzte; azkenik, 12:35ean benjamin nesken txanda izango da, eta 1.100 metro egingo dituzte korrika.

Lasterketa bakoitzeko lehen hirurak podiumera igotzen dira, eta parte hartzaile guztiek jasoko dute oroigarria.



Txapelketaren aurkezpenean, Jon Irazu, ezkerretik bigarrena. ORIAMENDI

Jon Irazu, afizionatuen txapelketan

Erredakzioa Aduna

Oriamendi enpresak antolatuta, Afizionatuen Erremonte Txapelketa jokatu da urtarrilaren 27an hasi eta otsailaren 24ra bitartean, eta bertan parte hartuko du Jon Irazu aurrelari adunarrak. Hiru bikoteren arteko txapelketa izango da. Irazuk Aitor Aiestaran hernaniarrarekin osatuko du bikotea, Urtxi Gurrutxaga aizarnazabaldarrak eta Goikoetxea VI.a zestoarrak osatuko dute bigarrena, eta Mattin Arlu-ciaga hernaniarrak eta Aritz Eskudero andoaindarrak hirugarrena. Partida guztiak Hernaniko Galarreta pilotalekuan

jokatuko dira eta 40 tantora izango dira.

Lehenbizi hiru bikoteen arteko ligaxka jokatu da. Lehen partida urtarrilaren 27an izango da, Irazu-Aiestaran eta Mattin-Eskudero artekoa. Otsailaren 3an jokatu da bigarrena, Urtzi-Goikoetxea VI.a eta lehen jardunaldiko galtzaileen artekoa. Hirugarren partida otsailaren 10ean jokatu da. Ligaxkako sailkapeneko lehen bikotea finalera igaroko da zuzenean, eta bigarren eta hirugarren sailkatuen artean finalaurrekoa jokatu dute. Otsailaren 17an izango da partida hori. Finala, berriz, otsailaren 24ean jokatu da.

Eneko Maizek ezin izan du bigarren partida irabazi

AMASA-VILLABONA // Eneko Maizek profesional mailako beste partida bat jokatu zuen astelehenean, Donibane Garaziko Garat trinketeen, Andoni Ipharren aurka. Pilotari billabonatarrek ez zuen garaipena lortu (40-37), Euskal Pilotaren Frantziako Federazioa Txapelketako bigarren faseko partidari, eta gainera min hartu zuen eskuan. Norgehiagoka estua izan zen, eta billabonatarrek maila onean hasi zuen. Eskua minduta zuen arren, aurreraria mendeen hartzea lortu zuen lehen tantoetan. Hala ere, partidak aurrera egin ahala, eskuko minak joko egokia egitea eragotzi zion, eta azkenean, zailtasun handiekin jarraitu ahal izan zuen partidaren erritmoa.

Kirolari buruz mahai ingurua antolatu du Tolosa CF-k

TOLOSA // Klubaren mendeurrenaren harira, Tolosa CF-k mahai ingurua antolatu du datorren asteartea, urtarrilaren 24rako. *Kirolaren kontzeptuan aldatetak: garapena mendeurren batean* izenburupean, Julian Redondo Espainiako Kirol Kazetarien Elkarteko lehendakaria izango da moderatzailea. Juanjo Alvarez, zuzenbidean lizentziatua, doktorea EHUn eta Tolosa CF-ko futbol jokalaririk ohiak; Roberto Galarreta, EHUKo Ingeniaritza Fakultateko irakaslea eta Tolosa CF-ko futbolari ohiak; eta Cristina Granados, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko irakaslea izango dira hizlariak. Topic zentroan egingo da, 19:00etan, eta sarrera doan da, edukiera bete arte.

Ibarrakoak lehen postuan daude 540 kiloko mailan

Erredakzioa Ibarra

Ibarra Sokatira Taldekoek aurreko bi asteburuetan Euskal Herriko Txapelketako hainbat jardunaldi izan dituzte 8x8 modalitatean, eta emakumezkoen taldeak izan du emaitza nabarmena, 540 kiloko mailan lehen postuan jarri baitira.

Urtarrilaren 7an, gizonezkoen 680 kiloko txapelketa lehiatu zen Hazparne herrian (Lapurdin). Bertan sei taldek hartu zuten parte: Zuraide A, Zuraide B, Gaztedi, Ñapurak, Beti Gazte eta Ibarra. Eskualdeko taldeak ez zuen txapela lortzerik izan; izan ere, 680 kiloko txapelketan 630 kiloko taldearekin lehiatu zen, eta pisu diferentziak eragin handia du. Beti Gazte izan zen garai-le.

Urtarrilaren 8an emakumezkoen txanda izan zen eta 540 kiloko kategoriari eman zioten hasiera. Hiru jardunaldi izango dira guztira, eta lehenengoa Lesakan jokatu zen. Ibarra Sokatira Taldeko neskez gain, beste bost taldek hartu zuten parte: Gaztedi, Beti Gazte, Badaiotz, Abadiño eta Amaiur. Tiraldi go-



Ibarra Sokatira taldeko kideak, 540 kiloko lehen jardunaldian. POTRONKO

gor batzuen ostean, eguneko sailkapenean Ibarra taldeak aurrea geratzea lortu zuen, Beti Gazte atzetik zuelarik. Horrela izan zen sailkapena: 1. Ibarra, 6 puntu; 2. Beti Gazte, 5 puntu; 3. Gaztedi, 4 puntu; 4. Badaiotz, 3 puntu; 5. Amaiur, 2 puntu; 6. Abadiño, 1 puntu.

Urtarrilaren 14an, Busturian jokatu zen gizonezkoen 640 kiloko lehen jardunaldia, eta Ibarra taldekoak azken postuan kokatuta daude. Guztira zortzi talde ari dira lehian, eta lehen jardunaldiaren ondoren horrela dago

sailkapena: 1. Beti Gazte, 8 puntu; 2. Gaztedi, 7 puntu; 3. Zuraide A, 6 puntu; 4. Ñapurak, 5 puntu; 5. Abadiño, 3,5 puntu; 6. Amaiur, 3,5 puntu; 7. Zuraide B, 2 puntu; 8. Ibarra, 1 puntu. Jardunaldi horretako puntuazioak eta datorren asteburukoak batuta, lehen sei taldeak pasatuko dira finalera.

Hain justu, igande honetan, urtarrilaren 22an, jokatu da gizonezkoen 640 kiloko eta emakumezkoen 540 kiloko kategorien bigarren jardunaldiak, Burgelun.



OSTEGUNA, 2023KO URTARRILAK 19
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetalea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezera arreta zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



LEKU GARAIENAK ZURITU DITU

Eskualdeko leku garaiak erabat zuritu zituen atzo, elurrak: Bidania-Goiatz (lehen irudia), Berastegi (bigarrena), Abaltzisketa, Izaskun... Egoera aldatu egingo da gaur, iragarpenen arabera. Goizetik aurrera ez du elurrik egingo, eta arratsaldean gora egingo du tenperaturak. Horrek arazoak sor ditzake hala ere, elurra urtzerakoan ibaien mailak gora egiteko arriskua izango baita. Elurrak utzitako irudiak ikusi daitezke Ataria.eus webgunean. I.U.A.-I.S.A.

OSTEGUNA 19

AGENDA

Erakusketak

Tolosa. Jordi Bertran, txotxongilola-riaren 45 urte, Topic-en.

Tolosa. Juan Sagastizabalen Mundu naturala erakusketa Aranburun.

Tolosa. Munduari bira eman zion ontzia erakusketa, Aranburu jauregian.

Ikus-entzunezkoak

Tolosa. Utama filma, zine forumean, Leidorren, 20:30ean.

28 KANALA

GAUR

09:30. Tolosaldea Gertutik

15:00. Elkarriketap

16:00. Jo Pilota

21:30. Tolosaldea Gertutik

22:00. Playlist

BIHAR

11:30. Tolosaldea Gertutik

16:30. Eugeniren txokoa

17:00. Danbako 2022 (Erromintxela)

21:30. Tolosaldea Gertutik

22:00. Jo Pilota

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzea.

10:00. Kirol tertulia. Josu Artutxa eta Imanol Garcia Landarekin.

12:30. Pasahitza. Eskualdeko albisteak.

20:00. Mendikatea. Mendiari buruzko saioa, Unai Ugartemendiaren eskutik. Gaurkoan, Ramon Olasagastiri elkarriketa.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. L.L. Maset.

Euskal Herria kalea, 3. 943 67 32 74.

TOLOSA. Gauekoa. L.A. Morant. Zabalaretan lorategiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro iluna. Beste egun batez jarraian zerua estalirik egongo da eta euria hizpide izango da. Zaparradak ia egun osoan botako ditu, azken orduetan mardulak izango direlarik, fronte baten eskutik. Elur-maila goizean 300-400 metroan kokatuko da, baina arratsaldean igo egingo da, 700-800 metroan kokatuz. Gauean 1.000 metrotik gora igoko da. Mendebaldeko haize zakarrak joko du eta tenperatura igo egingo da, 3-7 graduan joz goia.

Bihar. Giro lasaia goa. Goizean oraindik hodeiak nagusi izango dira eta goizean goiz zaparradaren bat edo beste izango da. Goiz erdirako ordea atertu egingo du eta eguerditik aurrera ostarte batzuk zabalduko dira, arratsaldean giro politagoarekin emango dugularik. Gauean berriz ere hodeiak nagusituko dira. Ipar-haizea ibiliko da. Tenperatura zertxobait igoko da, 5-8 graduan joz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Bertsolariak:

- Oihana Iguaran
- Jexux Mari Irazu
- Alaia Martin
- Amets Arzallus
- Nerea Ibarzabal
- Sustrai Colina

Gai jartzailea:

- Amaia Agirre

Urtarrilak 21

LARUNBATA

18:00

Tolosako
Leidor antzokian

2023 ataria BERTSO JAIALDIA

SARRERAK AGORTUTA

Antolatzaileak:

